# EKOIRAKURLEAREN ERRONKA

## ZER EKOIRAKURLE-TRIBUTAKO KIDE ZARA?

## ZER EGIN BEHAR DA PARTE HARTZEKO?

Mundua leku jasangarriagoa bihurtu nahi baduzu, hauxe da zure erronka. Parte hartzea oso erraza da:

- Bilatu haziak (mertxikenak, mizpirenak, ahuakateenak...) edo lekaleak (txitxirioak, babak, dilistak...).
- Egin taulako erronkak.

Zenbat eta inplikazio handiagoa, erronka gehiago lortuko dituzu eta hazi gehiago bildu ahal izango dituzu.

## ERAKUTSI MUNDUARI EKOIRAKURLE BIKAINA ZARELA!

### MAILA: ETXEKO HEROIA (HAZI 1, ERRONKA BAKOITZEKO)

1 Erabili ontzi berrerabilgarriak eta baztertu paketatutako produktuak.

2 Zaindu zure liburuak. Kulturak balio izugarria du.

3 Dutxatu. Ez urik alferrik gastatu bainatzen.

4 Ez alferrik galdu janaririk.




### MAILA: AUZOKO OHOREZKO KIDEA (2 HAZI, ERRONKA BAKOITZEKO)

1 Gogoratu! Eraman zeure poltsa erosketetara eta saiatu plastikorik ez erabiltzen.

2 Eman erabiltzen ez dituzun gauzak. GKEek bizitza berria emango diote.

3 Auzoan ibiltzeko, erabili bizikleta edo garraio publikoa, edota ibili oinez.

4 Babestu auzoko dendak, baita liburu-dendak ere. Gogoratu aldaketa liburuetan hazten dela.

### MAILA: IKASGELAKO IZARRA (3 HAZI, ERRONKA BAKOITZEKO)

1 Berdintasunez tratatu ikaskide guztiak.

2 Antolatu eta berritu ikastetxeko edo ikasgelako liburutegia.

3 Lagundu eskolako baratzea abian jartzen.

### BOTEREAREN HAZIA (10 HAZI)

1 Nola lagundu dezake ikastetxeak auzoa eraldatzen?

2 Birziklatu al daiteke zure ikastetxean?

3 Zer egin daiteke desberdintasunik ez egoteko?

4 Talde osoak bere eguneroko jokaera aztertuko du eta kontuan hartuko du zer inplikazio-maila duen komunitatean. Jarriko al zenukete martxan gizarte-erantzukizuna sustatzeko kanpainaren bat?

Garapen jasangarrirako helburuak lortzeko neurri hauek edo beste batzuk martxan jartzen badituzu, konta iezaguzu sare sozialetan, eta erabili traol hau: **#EKOIRAKURLEAKGARA**.